

ETXAURI**Behin betiko onetsita Etxauriko telebanaketari lotzeko eta zerbitzua izateko tasak arautzen dituen ordenantza**

Udal honek, 2006ko irailaren 15ean egin bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

"Jendaurrean egoteko epea iragan baita inork alegaziorik aurkeztu gabe Etxauriko telebanaketari lotzeko eta zerbitzua izateko tasak arautzen dituen ordenantza hasiera batean onesten duen erabakiaren kontra (2006ko 72. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua, ekainaren 16an), Udaltzarak, osoko bilkuran, aho batez, hots, legez eskatutako gehiengoa izanik, honako hau erabaki du:

1. Behin betiko onestea Etxauriko telebanaketari lotzeko eta zerbitzua izateko tasak arautzen dituen ordenantza.
2. Ordenantzaren testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea."

Etxaurin, 2006ko urriaren 18an._Alkatea, José Javier Erro Larrea.

ORDENANTZA FISKALA, ETXAURIKO TELEBANAKETARI LOTZEKO ETA ZERBITZUA IZATEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**Oinarria**

1. artikulua. Ordenantza hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearren lehenengo tituluko IV. kapituluko 1. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Telebanaketa sarea eskuratzea da.

Subjektu pasiboak

3. artikulua. Etxauriko etxebizitzaren jabeak dira ordenantza honetan araututako tasak ordaintzera behartutako subjektu pasiboak, telebanaketa sarea ezarrita badute edo hari lotzea eskatzen badute.

Karga-oinarriak

4. artikulua. Hauek dira oinarriak:

- a) Telebanaketa sareari lotzeagatik.
- b) Telebanaketa zerbitzua erabiltzeagatik.

Tarifak

5. artikulua. Tasa hauek ezarri dira:

- a) Sareari lotzeagatik, etxebizitzaren jabeek 150 euro ordainduko dute, antena kolektiboa duten blokeetan izan ezik, horietan etxebizitza bakoitzak 60 euro ordainduko baitu.
- b) Sarea erabiltzeagatik. 18 euroko kuota ezarri da urteko, sareari lotutako telebista duen etxebizitza bakoitzeko.

Kudeaketa arauak

6. artikulua. Etxauriko Udala da telebanaketa sare orokorraren jabea, eta ezin du inork deribazio edo lotunerik egin Udalaren baimenik ez badu.

7. artikulua. Telebanaketa sareari lotu nahi zaizkion pertsonen eskabidea aurkeztu beharko dute Etxauriko Udalean, eta adierazi non dagoen lotu gogo den etxebizitza.

Lotunea egiteko unean, bertan egon beharko du sarearen mantentze lanaz arduratzen den enpresak, deus hondatu ez dadin.

8. artikulua. Sare orokorrari lotzeko lanak hasi aurretik, lotune eskubideek ordainduta egon beharko dute, halakorik baldin bada.

9. artikulua. Udalaren erantzukizuna da telebanaketaren sare orokorra konpontzea, hau da, seinale egokia bermatu beharko dio etxebizitza bakoitzari espaloiko lotunearen TAPen.

Lotunea egin ondotik, etxebizitzaren jabe partikularraren kontura izanen dira akatsak eta matxurak.

Dirubilketa

10. artikulua. Ordainaldi bakarrean kobratuko da urteko kuota, Udalak aldeztu aurretik jakinarazita. Lotunea egin baino

lehen ordainduko dira hartarako eskubideak.

11. artikulua. Borondatezko aldian tasak ordaintzen ez dituztenei Nafarroko Toki Ogasunen Erregelamenduan ezarritako errekarua gehituko zaie, luzapenagatik. Aipatu erregelamenduko 275. artikuluan zehaztutako epeak iraganik, premiamendu bidez kobratuko dira, dagozkien errekaruak eta gastuak barne.

12. artikulua. Bi urteko edo gehiagoko tasak zor dituzten zergadunei baja emanen zaie zerbitzuan eta homidura kenduko zaie Udalak hala erabakiz gero, aurreko artikuluan xedatutakoa ukatu gabe.

Zor dituzten tasak ordaindutakoan, zergadun horiek alta eskatzen badute, Udalak, baldintza gisa, egokia iruditzen zaion fidantza eskatzen ahalko die erabakitzen duen eperako. Bidezko eskubideak ordaindu beharko dira, zerbitzuan lehen aldiz alta hartuko balitz bezala, non ez den frogatzen norberarekin zerikusia ez duten arrazoiek ekarri dutela atzerapena ordainketan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa._Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betikoz onetsitakoan, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN testua oso-osorik argitara emandakoan.

Bigarrena._Ordenantza fiskal hau aldatzeko, onesteko behar dituen izapide berberak eginen dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko lehen kapituluko hirugarren atalean xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena._Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan aplikagarri izanen dira ordenantza fiskal orokorra, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta udal erabakiak baino goragoko xedapen guztiak, araututako arloei aplikatzeko modukoak diren heinean.

Etxaurin, 2006ko apirilaren 5ean._Alkatea, José Javier Erro Larrea.

Iragarkiaren kodea: L0616749